Con posterioridad a la fecha de cierre y hasta la fecha de formulación de las presentes cuentas anuales, no se ha producido ningún hecho significativo que pudiera afectar a una reformulación de cuentas anuales, a la capacidad de evaluación por parte de los usuarios de las cuentas anuales ni a la aplicación del principio de empresa en funcionamiento.



0054782 A

15. oharra- ERAGIKETAK FUNDAZIOARI LOTUTAKO
ALDERDIEKINNota 15- OPERACIONES CON PARTES VINCULADAS

Fundazioari lotutako erakundeekiko saldoak, abenduaren 31koak, hauek dira:

Los saldos con entidades vinculadas a la Fundación al 31 de diciembre son los que se detallan a continuación:

kontzeptua / Concepto	Zordunak Deudores		Hartzekodunak Acreedores	
	31.12.23	31.12.22	31.12.23	31.12.22
Lotutako erakundeak <i>Entidades Vinculadas</i>				
▪ EII/E	0	0	442	0

Erakunde horiek eragiketa hauek egin dira:

Las operaciones realizadas con dichas entidades han sido las siguientes:

Concepto	2023		2022			
	Diru-laguntzak Subvenciones	Ermandako zerbitzuak Servicios prestados	Jasotako zerbitzuak Servicios recibidos	Diru-laguntzak Subvenciones	Ermandako zerbitzuak Servicios prestados	Jasotako zerbitzuak Servicios recibidos
▪ Euskal Autonomia Erkidegoaren administrazioa <i>Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi</i>	1.175.000	0	0	1.020.000	0	0
▪ NEKER BRTA	0	0	22.995	0	0	21.119
▪ <i>Fundación Hazi</i>	0	0	5.502	0	0	6.200
▪ <i>Fundación AZTI</i>	0	0	0	0	0	48.400
▪ EII/E	0	0	1.194	0	0	0
<i>Guztira</i>	<i>1.175.000</i>	<i>0</i>	<i>29.691</i>	<i>1.020.000</i>	<i>0</i>	<i>75.719</i>
<i>Total</i>						

Patronatuko eta Goi-zuzendaritzako kideek jasotako ordainsariak eta beste prestazio batzukRetribuciones y otras prestaciones a los miembros del Patronato y Alta Dirección

2023 eta 2022 ekitaldietan, Patronatuko kideek ez dute inolako ordainsaririk, prestaziorik edo dietarik jasotako.

Los miembros del Patronato no han recibido ningún tipo de retribución o prestación por sueldos, dietas u otros conceptos durante los ejercicios 2023 y 2022.

2023ko abenduaren 31n dauden kideei dagokienez, ez da aurrerakinik edo krediturik eman, eta ez da obligaziorik hartu pentstioen edo bizi-aseguruaren arloan.

Tampoco existen anticipos o créditos concedidos, ni obligaciones contraídas en materia de pensiones o seguros de vida respecto a los actuales miembros al 31 de diciembre de 2023.

Fundazioko Goi mailako Zuzendaritzako kideen soldatak ordaintzeko zenbatekoa 76.724 eurokoa da (2022an 79.626 euro).

El importe recibido por el personal de Alta Dirección de la Fundación en concepto de remuneración salarial es de 79.626 euros (76.724 en 2022).



0054783 A

16. oharra- BESTELAKO INFORMAZIOA

Nota 16- OTRA INFORMACIÓN

16.1- Patronatuko eta Zuzendaritzako kideak

16.1- Miembros del Patronato y Dirección

2023ko abenduaren 31n, Fundazioaren Patronatua honela dago osatuta:

El Patronato de la Fundación a 31 de diciembre de 2023 está compuesto por los siguientes miembros:

Presidentea <i>Presidente</i>	Bitior Oroz Izaguirre
Presidenteordea <i>Vicepresidente</i>	Raúl Pérez Iratxeta
Idazkaria <i>Secretario</i>	Rogelio Pozo Carro
Kideak <i>Vocales</i>	Leandro Azkue Mugica Jorge Garbisu Buesa Itziar Larizgoitia Jauregui M ^a Luz Ruiz Melendo Laura Ángela Alzola Kirschgens Peli Manterola Arteta Leire Barañano Orbe

16.2- Xedapen egintzak

16.2- Actos de disposición

Ez da egin Fundazioaren ondarea osatzen duten ondasun edo eskubideen gaineko xedapenik edo kargak ezartzeko moduko egintzarik.

No se han realizado actos de disposición o gravamen sobre bienes o derechos que conforman la dotación patrimonial.

16.3- Giza balibideak

16.3- Recursos humanos

Hona hemen Fundazioaren langileen banaketa ekitaldiaren amaieran, kategoriararen eta sexuaren arabera:

La distribución por sexos al término del ejercicio del personal de la Fundación, desglosado por categorías y sexo es el siguiente:

Langileak Personal	Gizonak Hombres		Emakumeak Mujeres		Guztira Total	
	2023	2022	2023	2022	2023	2022
Patronatuko kideak <i>Miembros Patronato</i>	6	6	4	4	10	10
Goi-zuzendaritza <i>Alta Dirección</i>	0	0	1	1	1	1
Langile teknikoak <i>Personal técnico (*)</i>	3	3	6	7	9	10
Langile-kopurua ekitaldaren amaieran Total personal al término del ejercicio	9	9	11	12	20	21

(*) 2022an eta 2023an hainbat pertsona lanaldi-murrizketarekin daude (bi %80ekoa eta bat %50ekoa).

(*) En 2022 y 2023 hay varias personas con reducciones de jornada (dos al 80% y otra al 50%).

Hona hemen batez besteko enplegatu-kopurua ekitaldian zehar, kategoriararen arabera banatuta:

El número medio de personas empleadas en el curso del ejercicio, expresado por categorías es el siguiente:

Langileak Personal	Guztira Total	
	2023	2022
Patronatuko kideak <i>Miembros Patronato</i>	10	10
Goi-zuzendaritza <i>Alta Dirección</i>	1	1
Langile teknikoak <i>Personal técnico</i>	8,38	8,30
Batez besteko langile-kopurua ekitaldian Total personal medio del ejercicio	19,38	19,30

Ekitaldian zehar ez da kontratatu % 33ko edo hortik gorako desgaitasun fisikoa duen pertsonarik.

Durante el ejercicio no se han empleado personas con discapacidad igual o mayor del 33%.

16.4- Bestelako informazioa

16.4- Otra información

2023 ekitaldian, urteko kontuen auditoretza-lanak egiteagatik 4.500 euroko ordainsaria jaso dute auditoreek (2022 ekitaldian, 4.500 euro).

Los honorarios por los auditores durante el ejercicio 2023 por trabajos de auditoría de cuentas anuales han ascendido a 4.500 euros (IVA no incluido) (4.500 euros en el ejercicio 2022).

17. oharra- ESKUDIRUAREN FLUXUEN EGOERA

Nota 17- ESTADO DE FLUJOS DE EFECTIVO

Kontzeptua Concepto	Oharrak Notas	2023 ekitalia Ejercicio 2023	2022 ekitalia Ejercicio 2022
A) USTAPEN-JARDUEREN ESKUDIRUAREN FLUXUAK: FLUJOS DE EFECTIVO DE LAS ACTIVIDADES DE EXPLOTACIÓN:			
1. Ekitaldaren gaindikina, zergak ordaindu aurretik <i>Excedente del ejercicio antes de impuestos</i>		19.057	37.392
3. Aldaketak kapital korrontean <i>Cambios en el capital corriente</i>		88.618	(52.736)
b) Zordunak eta ordaindu gabeko beste kontu batzuk <i>Deudores y otros cuentas a cobrar</i>	11.1	1.043	47.894
d) Hartzekodunak eta ordaindu gabeko beste kontu batzuk <i>Acreedores y otras cuentas a pagar</i>		(9.546)	(101.808)
e) Bestelako pasibo korronteak <i>Otros pasivos corrientes</i>		97.121	1.178
5. USTAPEN-JARDUEREN ESKU-DIRUAREN FLUXUAK FLUJOS DE EFECTIVO DE LAS ACTIVIDADES DE EXPLOTACIÓN		107.676	(15.343)
B) INBERTSIO-JARDUEREN ESKU-DIRUAREN FLUXUAK: FLUJOS DE EFECTIVO DE LAS ACTIVIDADES DE INVERSIÓN:			
8. INBERTSIO-JARDUEREN ESKU-DIRUAREN FLUXUAK <i>FLUJOS DE EFECTIVO DE LAS ACTIVIDADES DE INVERSIÓN</i>			0
C) FINANTZA-JARDUEREN ESKU-DIRUAREN FLUXUAK: FLUJOS DE EFECTIVO DE LAS ACTIVIDADES DE FINANCIACIÓN:			
10. Kobrantzak eta ordainketak finantza-pasiboen tresnen bidez <i>Cobros y pagos por instrumentos de pasivo financiero</i>		-	(69.065)
a) <i>Jaulkipena</i> Emissi3n		-	(69.065)
2. Kreditu-erakundeekin egindako zorrak Deudas con entidades de crédito		-	(1.030)
4. Bestelako zorrak Otras deudas	11.1	-	(68.035)
b) Itzultzea eta amortizatzea Devoluci3n y amortizaci3n de		4.534	-
4. Bestelako zorrak Otras deudas		4.534	-
11. FINANTZA-JARDUEREN ESKU-DIRUAREN FLUXUAK FLUJOS DE EFECTIVO DE LAS ACTIVIDADES DE FINANCIACIÓN		4.534	(69.065)
D) KANBIO-TASEN BALORAZIOEN ERAGINA EFECTO DE LAS VALORACIONES DE LOS TIPOS DE CAMBIO		-	-
E) ESKUDIRUAREN EDO BALIOKIDEN IGOERA/JAITSIERA GARBIA AUMENTO/DISMINUCIÓN NETA DEL EFECTIVO O EQUIVALENTES		112.210	(84.408)
Eskudirua edo balioakidea ekitaldaren hasieran <i>Efectivo o equivalentes al comienzo del ejercicio</i>		396.366	480.774
Eskudirua edo balioakidea ekitaldaren amaieran <i>Efectivo o equivalentes al final del ejercicio</i>		508.575	396.366

18. oharra- INBENTARIOA

Nota 18- INVENTARIO

Hona hemen Fundazioaren ondasun, eskubide eta obligazioen inbentarioa, elementu garrantzitsuenak xehekatuta:

A continuación, se muestra el inventario de bienes, derechos y obligaciones desglosando los elementos más relevantes de la Fundación:

AKTIBOA
ACTIVO

Elementua Elemento	Eskuraketa-data Fecha Adquisición	Kostu-balioa Valor de Coste	Amort.metaketa Amort. Acumulada	Balio garbia Valor Neto
AKTIBO EZ KORRONTEA				
ACTIVO NO CORRIENTE				
Aplikazio informatikoak		721	721	0
<i>Aplicaciones Informáticas</i>				
PROGRAMA CONTAPLUS	21/02/2003	199	199	0
I.K.T.	23/12/2009	3.680	3.680	0
I.K.T.	31/12/2009	7.500	7.500	0
VEISS	31/12/2009	19.619	19.619	0
LKS	31/12/2011	29.735	29.735	0
LICENCIA GOB ACROBAT PRO X	19/12/2011	2.397	2.397	0
Bulego berritiko obrak Obras nueva oficina	01/06/2005	189.572	189.572	0
INMOVILIZADO IKT		2.335	2.335	0
ALAVESA DE SONIDO		277	277	0
VICTRA S.C.		347	347	0
SIEMENS		966	966	0
MONTE MOBILIARIO		4.696	4.696	0
SILA MOD. "COMFORT"	01/06/2003	1.119	1.119	0
ORNARE	30/05/2005	25.946	25.946	0
GOYA	11/07/2005	351	351	0
ORNARE	22/11/2006	1.379	1.379	0
ORNARE	26/02/2007	3.188	3.188	0
ESTANTERIA CENTRAL EASY	22/12/2011	2.328	2.328	0
PHASE, S.L.		2.614	2.614	0
EL CORTE INGLES		1.193	1.193	0
CANON SIST. OFICINAS		751	751	0
FOTOCOPIADORA "AFICIO"	06/03/2003	2.694	2.694	0
7 ORDENADORES "BROWNSVILLE"	19/05/2003	9.516	9.516	0
DISCO DURO 20 GH	04/04/2003	1.598	1.598	0
PORTATIL COMPAQ EVO NX5000	16/04/2004	1.490	1.490	0
X LAN	04/05/2005	830	830	0
PHASE, S.L.	01/06/2005	920	920	0
SOFTEC	23/09/2005	1.352	1.352	0
X LAN	14/03/2007	3.580	3.580	0
PHASE, S.L.	23/04/2007	1.499	1.499	0
SEMIG	21/12/2007	1.685	1.685	0
SEMIG	26/11/2008	5.243	5.243	0
SEMIG	29/07/2009	623	623	0
TELMULTI	31/07/2009	476	476	0
DERTEN SISTEM	29/12/2009	816	816	0
T SYSTEMS	10/09/2009	4.434	4.434	0
DERTEN	04/07/2011	864	864	0
DERTEN	28/10/2011	3.473	3.473	0
DISCO DURO Y MONITOR	31/01/2012	233	233	0
FOTOCOPIADORA	21/12/2012	3.300	3.300	0
Guztira Total		345.539	345.539	0

AKTIBO KORRONTEA
ACTIVO CORRIENTE

Elementua Elemento	Eskuraketa-data Fecha Adquisición	Kostu-balioa Valor de Coste	Narriadura Deterioro	Balio garbia Valor Neto
Zordunak Deudores				
Comisión Europea	2020	7.603	0	7.603
Eskudirua Efectivo	2023	508.575	0	508.575
Zordunak eta eskudirua, guztira				
Total deudores y efectivo		516.178	0	516.178

PASIBOA
PASIVO

PASIBO EZ KORRONTEA
PASIVO NO CORRIENTE

Elementua Elemento	Eskuraketa-data Fecha Adquisición	Kostu-balioa Valor de Coste	Amort. metatua Amort. Acumulada	Balio garbia Valor Neto
Bezeroak Comisión Europea Subvención	2020	16.510	0	16.510
Guztira Total		16.510	0	16.510

PASIBO KORRONTEA
PASIVO CORRIENTE

Elementua Elemento	Eskuraketa-data Fecha Adquisición	Kostu-balioa Valor de Coste	Narriadura Deterioro	Balio garbia Valor Neto
Zorrrak visa Deudas visa	2023	5.781	0	5.781
Merkatari txako horritzaileak Proveedores comerciales	2023	9.666	0	9.666
Subvención Berpiztu GV	2023	130.390	0	130.390
Comisión Europea Subvención	2021	16.510	0	16.510
Langileak Personal	2023	3.290	0	3.290
O.P. Hartzekoduna PFEZgatik H.P. Acreedora por IRPF	2023	33.588	0	33.588
GS hartzekoduna SS Acreedora	2023	15.478	0	15.478
Zorrrak gustira Total Deudas		214.703	0	214.703

19. oharra- HORNITZAILEEI ORDAINITZEKO BATEZ
BESTEKO ALDIARI BURUZKO
INFORMAZIOA. Uztailaren 5eko 15/2010
Legearen hirugarren xedapen gehigarria
(Informazioa eman beharria).

Nota 19- INFORMACIÓN SOBRE EL PERIODO MEDIO DE
PAGO A PROVEEDORES. Disposición adicional
tercera. "Deber de Información" de la Ley
15/2010, de 5 de julio.

Merkataritzako eragiketetan hornitzaileei ordaintzeko batez besteko epeari buruzko informazioa:

La información en relación con el periodo medio de pago a proveedores en operaciones comerciales, es la siguiente:

	Egunak	
	Días	2022
Hornitzaileei ordaintzeko batez besteko aldia		
<i>Periodo medio de pago a proveedores</i>	5,09	9,61
Ordaindutako eragiketen ratioa		
<i>Ratio de operaciones pagadas</i>	5,34	10,03
Ordaindu gabeko eragiketen ratioa		
<i>Ratio de operaciones pendientes de pago</i>	2,44	0,96
	Zenbatekoa	
	<i>Importe</i>	
Egindako ordainketa guztiak	405.595	499.281
<i>Total pagos realizados</i>		
Egin gabeko ordainketa guztiak	3.972	23.952
<i>Total pagos pendientes</i>		

Horrez gain, irailaren 28ko 18/2022 Legeak aldatutako 15/2010 Legearen hirugarren xedapen gehigarrian adierazitakoaren arabera, ezarritako gehieneko epea baino epe laburragoan ordaindutako fakturei buruzko informazioa honako hau da:

Adicionalmente, según lo indicado en la disposición adicional tercera de la Ley 15/2010, modificada por la Ley 18/2022 de 28 de septiembre, la información sobre las facturas pagadas en un periodo inferior al máximo establecido, es la siguiente:

	2023	2022
Eurotan ordaindutako diru-bolumena /		
Volumen monetario pagado en euros	402.313	466.979
Hornitzaileei egindako ordainketen gutzitzaoren gaineko ehunekoa	99%	94%
Porcentaje que supone sobre el total monetario de pagos a los proveedores		
Ordaindutako fakturen kopurua	212	209
Número de facturas pagadas		
Hornitzaileei ordaindutako faktura kopuru osoaren gaineko ehunekoa	98%	97%
Porcentaje sobre el número total de facturas pagadas a proveedores		




0054790 A

ANEXO I

RSC ETA MEMORIA JARDUERA ELIKA Fundazioa

- 2023 -





Índice

A. Zuzendaritzaren Gutuna

B. 2023. urtearen laburpena

1. ELIKA Fundazioaren izaera

- a. RSC politika
- b. Gobernu-organismoak
- c. Aliantzak eta interes-taldeak
- d. Prozesuak eta ezagutza-esparruak
- e. Kudeaketa Aurreratuko Eredua

2. Kultura Estrategikoa

- a. Misioa
- b. Ikuspegia
- c. Baloreak
- d. Helburu Estrategikoak
- e. Jardueren laburpena

3. Dimentsio Ekonomikoa

- a. Balioa handitzea
- b. Balantzea eta kontuak

4. Dimentsio soziala

- a. Aditu-taldea
- b. Gizartea eta ingurunea

5. Ingurumen-dimentsioa

- a. Ingurumenarekiko konpromisoa
- b. Ingurumen-jarduna

6. Etorbizuneko erronkak



0054792 A

A. ZUZENDARITZAREN GUTUNA

ELIKA Eusko Jauriaritzak sortu zuen, elikadura-segurtasuna hobetzen laguntzeko, gai hori garrantzi handikoa baita bai kontsumitzaileentzat eta bai oro har gizartearentzat. 2001ean sortu zuten, krisi-une batean (behi zoroen krisia) identifikatu zen behar bati erantzuteko; izan ere, elikagaiak ekoizten zituztenek, eta batez ere animalia-jatorrizko elikagaiak, asko sufritu zuten, eta zalantzan jarri zen elikadura-segurtasuna. Ondorioz, elikaduraren arloko Europako legedia oso-osorik berrikusi zen.

Azken lau urteetan, beste krisi batzuk izan ditugu: COVID-19aren krisia, Ukrainako gerra eta klima-aldaketaren ondorioak eragiten ari diren krisiak. Guztiak dute eragina elikadura-segurtasunean: biztanleria osoaren sarbidea bermatu behar dute elikagaietara, horiek segurua izateaz gain. Beraz, azken urteetan elikadura albisteen eta agenda politikoan erdigunean dago: ondorioz, legeintza-jarduera bizia izan da Europan eta tokiko mailan.

Zalantzan jarri da Europako eta tokiko nekazaritzako elikadura-sistemaren orain arteko bideragarritasuna, eta nekazaritzako elikadura-sistema jasangarriago baten alde egin behar izan dugu. Eraldaketa horretarako, gure sistemako eragile guztiak beharrezko tresnak izan behar dituzte, eta ELIKAren moduko erakunde batek funtsezko rola du hor. Horregatik, 2023an, aholkularitza, tresnak, prestakuntza eta informazioa eman dizkiegu Euskadiko elikakateko eragile publiko eta pribatu guztiei, baita oro har gizarteari ere, elikadura-sistema berri baterako bideari ekiteko.

Beraz, elikadura-segurtasunaren kontu teknikoari buruzko aholkularitza eta informazioa ematez gain, Euskadiko elikakatearen kontrolari eta elikadura osasuntsuari eragiten baitete, elikagaien xahuketaren aurkako euskal estrategia gidatzen jarraitu dugu, eta abian jarri dugu, Basque Food Cluster erakundearekin batera, ONITZI izeneko plataforma. Haren helburua da gure enpresei laguntzea ontzien erabilera murrizten eta ontziak jasangarriagoak eta seguruagoak izan daitezen, elikagaien bizitza luzatzeko.

Gure ustez, beste behin, ELIKAK urteko helburuak bete ditu, eta lan egin du elikadura seguru, osasuntsu eta jasangarriago baten alde, ELIKA taldea osatzen duten pertsonen konpromisoari, ahaleginei eta egokitzeko gaitasunari esker.

Memoria honen bidez, eskerrak eman nahi dizkiegu, bereziki, gure interes-talde guztiei, hobetzen laguntzeagatik eta gure lanaren balioa azpimarratzeagatik.



Stua.: Miren Arantza Madariaga Aberasturi
ELIKAKo zuzendari - gerentea



0054793 A

B. 2023. URTEAREN LABURPENA

Gure antolamendu-kulturaren oinarriak dira fundazioaren kudeaketa eraginkorra, arduratsua eta gardena. Halaber, parte hartzen dugu gure ahalmenarekin bat datozen ekintzetan, ekarpen sozial eraginkorra egin badezakegu.

- **Dimentsio ekonomikoa:** ematen dizkiguten baliabideak modu eraginkor eta gardenean kudeatzeko konpromiso irmoa daukagu. Webgunearen bidez, jendearen eskura jartzen ditugu datu ekonomiko guztiak, kanpoko enpresa batek urtero ikuskatutako kontuak argitaratuta.

- **Dimentsio soziala:** fundazio publikoa garen heinean, gizarteari zerbitzua emateko bokazioa dugu, gure pertsonak zaintzen ditugun bitartean, ez bakarrik lan-esparruan, baita esparru sozialean ere. Halaber, gure langileen artean berdintasuna eta euskararen erabilera sustatzeko konpromiso irmoa daukagu. Modu aktiboan parte hartzen dugu GJHak (Basque Country 2030 Agenda) erakundeetan eta euskal gizartean sustatzen eta txertatzen.

- **Ingurumen-dimentsioa:** gure jarduerak ahalik eta eragin txikiena izan dezan saiatzeko gara, jarduera garatzeko behar ditugun baliabideen kontsumoa murriztuta. Erosketa berdearen irizpideak jarraitzen ditugu eta gure hornitzaileei ere hala egin dezaten eskatzen diegu. Bestalde, ahalik eta hondakin gutxien sortzen dugu eta sortzen dugun hori berrerabili edo birziklatu egiten dugu.

Fundazioak 2023. urtean egingandako jarduerari dagokionez, euskal administrazioari eta Nekazaritzako Elikagaien sektoreari eman ohi diegun aholkularitza-zerbitzua eta prestakuntza eta informazio-produktuen arteak, honako ekintza hauek azpimarra ditzakegu:

- **Aholkularitza zientifiko eta teknikoa euskal administrazioari, Elikagaien Segurtasunen politikak hedatzeko:** aurtten, nabarmendu beharra daga Eusko Jaurtaritzak elikadura-sistema jasangarriaren Europako lankidetzan duen parte-hartzearen kudeaketa eta alerten kudeaketan eta komunikazioan izandako aholkularitza: hegazi basatien hegaztien gripa (zaintza eta kontrol plana berrikustea eta kontingentzia plan bat egitea) eta behin hazienden gaixotasun hemorragiko epizootikoa. “Baserritik mahaira 2022-2026” ikerketa-plana dinamizatzen eta jarraitu dugu eta Elikakateko Kontrol Ofizialaren Planean aholkularitza mantendu dugu, 7 lantalde teknikotan parte hartzearen bidez. Era berean, Q sukarra zaindu eta kontrolatzeko plana eguneratzea sustatu dugu baita gaztaren elikagaien segurtasuna hobetzeko plana eguneratu ere. Bestalde, nekazaritza elikadurako ekoizpen-kopuru txikien eta hurbileko salmentaren malgutasun-araudia lantzen jarraitu dugu (izapidetzen ari da dekretua) eta abeltzaintzako ustiatuegien



0054794 A

antolamenduari buruzko dekretuaren zirriborroak egin ditugu (515/2009 dekretua indargabetu) eta erlezaintza antolatzeari buruzko dekretuarena (33/2004 dekretua indargabetu) ere bai. Amaitzeko, elikagaien xahuketari buruzko euskal estrategia dinamizatzen jarraitu dugu, eta elikagaiak xahutzearen aurkako irtenbideen proiektu pilotuetan izandako parte hartzea (Aiaraldea, Bilbaodendak) nabarmendu behar da, HORECA eta banaketa-sektoreei zuzendutako sentsibilizazioa eta Berrikuntzako Horizon Europa FOODRUS proiektuko parte hartzea, elikagaien galerak eta xahuketa murrizteko elikagaien sistema zirkularrari buruzkoa denean. Era berean, Elikaduraren Klusterrarekin batera eta ZTBPren esparruan, ENVAS3S proiektua jarri dugu abian. Proiektu horren helburua da ontziratzeko alternatiba segurua eta jasangarriak bilatzea gure elikagai-industriarentzat, arlo horretan gertatzen ari diren aldaketei behar bezala erantzun ahal izateko.

○ **Elikakateko eragileei laguntza ematea:** Elikagaien Segurtasunean eskakizunak hobeto ulertu eta ezartzeko tresnak mantendu eta/edo hobetu ditugu; nekazaritzako elikagaien sektorearentzako prestakuntza plataforma nabarmentzen da, LEGISELIKA legealdiko datu-basea, animalien elikagai eragileentzako pentsuen maparen funtzionalitate berriak, erlezaintza sektoreari laguntzeko materialak (erlezaintzako sorta), elikadurako arriskuei eta animalien gaixotasunei buruzko informazio-triptikoak eta fitxak (ardi-eta ahuntz-baztanga, gaixotasun hemorragiko epizootikoa), etiketatzeari buruzko material interaktiboak eta elikagaiak xahutzea saihesteko gidak eta aholkuak. Era berean, gure intereseko taldeen 150 eskariei erantzun diegu, hau da, informazio-eskariei (elikagaien segurtasuneko zalantzei), arauak interpretatzeari eta nekazaritzako elikagaien sektoreko beharrak eta arazoak bideratzeari ela elkarrizketatzeari buruzko zalantzak.

○ **Gure interes-taldeen prestakuntza:** 3 prestakuntza-ekitaldi antolatu ditugu elikagaien sektoreko gai desberdinei buruz, hala nola ikerketa-proiektuen hedapena, ekonomia zirkularra eta elikagaiak xahutzearen aurkako borroka. Elikadura sektoreko prestakuntza-ekintzen (FoodFuture, Getxolan) antolaketan ere hartu dugu parte, baita unibertsitateko ikasleei zuzendutakoetan (UPV/EHU, Mondragon Unibertsitatea) eta herritarrei zuzendutakoetan (BBK Sasoihoa, Pint of Science) ere. Bestalde, beste erakunde batzuek Elikagaien Segurtasunean eta elikadura jasangarri eta osasungarriaren alorrean antolatutako 26 jardunaldi baino gehiagotan eta ikastaroretan hitzaldiak ematera gonbidatu gaituzte.

○ **Informazioa jakinarazi eta hedapena:** elikagaien segurtasuneko eta elikadura jasangarri eta osasungarriaren artoan nazioartean argitaratutako informazio eguneratu guztia gure intereseko taldeen esku jartzan jarraitu dugu, ohiko formatuen bidez. Ildo horretan, 2023an 140 albiste eta 83 material informatibo argitaratu ditugu, besteak beste



0054795 A

nabarmentzen dira, elikadura osasungarriari buruzko material infografiko berriak (nutriente kritikoak: azukrea, gatza eta koipeak) eta EITBko saiorako (A Bocados) elikadura-segurtasuneko aholkuak dituzten bideoak. Argitaratzen dugun informazio guztia gure oniko bideen bidez eskuratu daiteke, hau da, gure webgunearen bidez eta kontsumitzaileei eskainitako atariaren bidez (hilero 50.000 erabiltzaile inguru ditu), Elikaberrri hilaibeteariaren bidez (gaur egun 800 lagun baino gehiagok jasotzen dute) eta 12.000 jarraitzaile baino gehiago dituzten sare sozialen bidez (Twitter, Facebook, Instagram eta LinkedIn). Komunikabideetan ere gero eta presentzia handiagoa dugu; prentsan, irratian eta telebistan 69 eragin zenbatu ditugu. Zifra horiek guztiak Elikagaien Segurtasun arloan erreferente bihurtzen gaituzte Euskadin, gure ikuspegian definitu dugun bezala.

1. ELIKA Fundazioaren izaera

Elika Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saileko Nekazaritzako, Arrantzako eta Elikagai Politikako Sailburuordetzari atxikitako fundazio publikoa da, eta bere helburua da EAEn nekazaritzako elikagaien segurtasun-mailarik altuena lortzeko tresna izatea.

Fundazioa 2001ean sortu zen Elikadura Segurtasunerako ezinbestekotzat jotzen diren jarduerak, ikerketak eta esperientziak sustatzeko, egituratzeko eta horiei lotutako aholkularitza emateko. Garai horretatik, Elikadura Segurtasunarekin zerikusia duten beharrak eta eskakizunak finkatu dira, eta elikagaien ekoizpen-kateko eragileei eskatu zaizkie, bai eta administrazio publikoari ere, eragileek eskakizun horiek betetzen dituztela zaintzeko eta kontrolatzeko.

Egoera horiek ELIKA erreferente bihurtu dute Elikagaien Segurtasunaren arloan; izan ere, esperientzia eta ezagutzak ditu Elikagaien Segurtasunaren barruan dauden eremuetan, kudeaketako bikaintasun-ereduak ditu, eta, gainera, ingurune aldakorreara egokitzen jakin du, eta bere lana egitean interes-talde guztiak bere jarduketara-eremuan partaide egin ditu.

a. Gizarte erantzukizun korporatiboko politika

Fundazio publiko gisa, zerbitzurako bokazioarekin jaino ginen. Xedea ez da soilik gure sorrerako helburuak betetzea eta Euskadiko Elikagaien Segurtasunaren hobekuntzan lan egitea; izan ere, zorrotzagoak izan behar dugu gure erantzukizun sozialarekin. Horregatik, euskal gizarteak guggan inbertitzen dituen baliaibideei balioa ematen saiatu behar dugu, eta, era berean, jokabide etiko, sozial eta ingurumenarekiko arduratsuak izan behar ditugu.

Horrenbestez, 2021-2024 Estrategia berriaren bidez, ingurumenarekiko errespetutsuak gara; prestakuntza eta komunikazio elebiduna sustatzen dugu (euskara eta gaztelania); erakunde eskuragarria, gardena eta euskal gizarte orokorrarekiko hurbila gara eta



0054796 A

Elikaduraren Segurtasunean dauden egiturei balioa eta laguntza emateko kalitatezko lana egiten dugu. Era berean, gizartearekin dugun konpromisoarekin kontsekuenteak gara, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzen dugu eta gardentasunari buruzko legea betetzen dugu. Horrez gain, Datuen Babeserako Europako Erregelamendura (DBEO) egokitu gara.

Garapen Jasangarriko Helburuak (GJH) identifikatu (Euskadi 2030 Agendan jasota daude) eta gure helburu estrategikoekin lerrokatu ditugu. Gainera, lankidetzak aktiboa dugu helburu horien txertaketa aktiboa sustatzen duten organoekin eta foruekin.

b. Gobernu-organismoak

PATRONATUA

ELIKAREN gobernu-, administrazio- eta ordezkaritza-organismo gorenak da. Organo horrek bere menpe ditu Fundazioaren kudeaketako zuzendaritza- eta kontrol-gaitasunak, zeinak beharrezkoak diren ezarritako erakunde-xedeak garatzeko. Honako hau da gure patronatuaren egungo osatera:

PRESIDENTEIA	Bittor Oroz Izaguirre Nekazaritza, Arrantza eta Elikagaien Politikako sailburordea Ekonomiaren Garapena, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila	
PRESIDENTEORDEA	Raúl Pérez Iratxeta Kalitate eta Elikadura Industrien zuzendaria Ekonomiaren Garapena, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila	
IDAZKARIA	Rogelio Pozo Carro AZTIko zuzendaria	Itziar Larizgoitia Jauregui Osasun Publikoa eta Adikzioak arloko zuzendaria Osasun Saila
BATZORDEKIDEAK	Leire Barañano Orbe NEIKEReko zuzendaria	Leandro Azkue Mugica Arrantza eta Akukultura zuzendaria Ekonomiaren Garapena, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila
	M ^a Luz Ruiz Melendo Zerbitzuen zuzendaria Ogasun eta Finantzen Saila	Jorge Garbisu Buesa Nekazaritzaren eta Abeltzaintzaren arloko zuzendaria Ekonomiaren Garapena, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila



0054797 A

c. Aliantzak eta interes-taldeak

Gure interes-taldeak 6 talde handitan sailkatzen dira: patronatua, bezeroak, kolaboratzaileak, pertsonak, hornitzaileak eta gizartea. Horien artean, gure pertsona edo erakunde aliatuak identifikatu ditugu (letra lodiz): parte hartzen dute gure egitekoa, ikuspegia eta helburuak lortzen, interes komuna partekatzen eta guztiontzako onurarekin.

○ **Patronatua:** Eusko Jaurlaritza (Nekazaritzako, Arrantzako eta Elikagai Politikako Sailburuordetza, Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritza, Elikagaien Berrikuntza eta Industriako Zuzendaritza, Arrantza eta Akuikultura Zuzendaritza, Osasun Publikoaren Zuzendaritza, Ogasuna), AZTI, NEIKER, HAZI eta Kontsumohide.

○ Gure zerbitzuen bezeroak/hartzaileak

- Administrazioa: Eusko Jaurlaritza, **Foru** Aldundiak eta Udalak
- Elikakatea: eragile sektorialak, elikakateko operadoreak eta teknologia-zentroak
- Kontsumitzaileak

○ Kolaboratzaileak:

- Batzorde Zientifikoa, adituak eta ikertzaileak (UPV/EHU, Leartiker)
- Lantalde eta proiektuetako parte-hartzaileak: **BFC** elikadura-klusterra, Ingurugela, Katilu, Bilbaodendak, Gasteizon, Aiaralde, Atxuri GE, Auzolan Fundazioa, Eroski.
- Oihartzuna ematen diguten nodoak / hedabideak
- Europako eta Estatuko administrazioak
- Antzeko erakundeak / elikadura-segurtasuneko agentziak

○ Pertsonak

○ Hornitzaileak: IFH

○ Gizartea / herritarrak

BEZEROAK ETA KOLABORATZAILEAK

Gure bezeroak gure produktuen eta zerbitzuen xede diren erakunde eta pertsona guztiak dira, zeinak gure Erakundearen motorra diren. Hiru multzo nagusi daude: Administrazioa, Elikakatea eta Pertsona Kontsumitzaileak.

Bestalde, kolaboratzaile-sarea handia daukagu. Lankide horiek nolabait parte hartzen dute gure produktuen eta zerbitzuen diseinurako eta garapenerako egiten ditugun lanetan.

Gure bezeroekin eta kolaboratzaileekin harreman arina dugu, eta une oro lankidetzan aritzen gara. Gainera, epe luze-rako konfiantzazko harremana ezartzen saiatzen gara;



0054798 A

horretarako, hurbileko tratua dugu eta gugana heltzeko erraztasun handiak ematen ditugu, betiere gure profesionaltasuna mantenduta eta egoera berrietara egokিতuta, etengabeko hobekuntzaren eta berrikuntzen bidez.



Gure bezeroen eta kolaboratzaileen asebetetze-
maila:

8,93

PERTSONAK

Elikako pertsonak dira erakundearen baliorik garrantzitsuenak, eta gure oinarria ezagutza denez, bereziki garrantzitsua da jasotzen dugun etengabeko prestakuntza. Horrez gain, gure pertsonen gaitasunak garatzeko lan egiten dugu, bai gaitasun teknikoak, bai giza gaitasunak eta pertsonen arteko gaitasunak.

Pertsona guztiok parte hartzen dugu estrategia definitzen eta hedatzen, eta lan-ingurune atseginari eusten; izan ere, horiei esker, eta garapen profesionalerako eta bizitza pertsonala eta profesionala bateragarri egiteko erraztasunekin batera, pertsonen motibazioa, konpromisoa eta inplikazioa handitzen dira eskaintzen ditugun produktu eta zerbitzu guztietan.



Elikako pertsonen asebetetze-
maila:

9,00

HORNITZAILEAK

Gure hornitzaileak dira gure bitartekoan bidez eskaini ezin ditugun eta gure beharrei eskaintza ekonomiko erakargarri baten bidez erantzuten dieten ondasunak eta zerbitzuak eskaintzen dituzten eragileak. Hornitzaileen kontratazioa Sektore Publikoko Kontratuen Legean xedatutakoa betez egiten da, eta kontratazio horiei buruzko informazio guztia eskuragarri dago gure webguneko gardentasun-atarian. Hornitzaileekin daukagun harremana arina eta konfiantzazkoa da.



Elikako hornitzaileen asebetetze-
maila:

9,29

GIZARTEA

Gure ustez, Gizartea da gure lana egiten dugun inguru soziala, eta, hortaz, gure jardueraren eraginak nabaritu ahal ditu. Fundazio Publiko gisa, gizarteari balioa emateko sortu ginen; horregatik, guretzat oso garrantzitsua da konpromiso soziala, zeina bost eremutan kokatzen dugun: gardentasuna, berdintasuna, euskararen erabilera, datu pertsonalen babesa eta ingurumenarekiko errespetua. Era berean, jarduketa zehatzak egiten ditugu, gizarte ekarpeneko esparruaren barruan, gure inguruko beharrak betetzera bideratuak.




Gizartearen asebetetze-maila: 8,21

d. Prozesuak eta ezagutza-esparruak

Prozesuak Kudeatzeko antolakuntza-eredua finkatuta daukagu eta gure jarduera osoa zortzi prozesuren barruan dago.

Prozesuen Mapan zortzi prozesu horiek islatzen dira, eta hiru prozesu estrategikotan, hiru prozesu operatibotan eta bi laguntza-prozesuak banakatzen dira:





0054800 A

Gainera, Ezagutza Arloak finkatuta ditugu, eta horietan ELIKAn lantzen ditugun gai guztiak zehazten dira:

- Elikadura segurtasuna
 - Nekazaritza
 - Abeltzaintza
 - Arrantza
 - Elikagaien Industria
 - Animalien Elikadura
- Elikadura Jasangarria
- Elikadura Osasungarria

e. Kudeaketa Aurreratuko Eredua

Gure erakundea bikaintasunarekin konprometituta dago 2007az geroztik; izan ere, ELIKAren kudeaketarako erreferentzia gisa Kalitateko Kudeaketarako Europako Fundazioaren (EFQM) bikaintasun-eredua ezarri genuen, eta, 2014an, Euskaliten Zilarrezko Q lortu genuen. Berandago, Kudeaketa Aurreratuen Eredua (KAE) hartu genuen erreferentzia gisa, eta Euskaliten Kudeaketa Aurreratuen urrezko sarria jaso genuen 2019an. 2021ean, Pertsonen Kudeaketa Aurreratuko Euskal Sarria jaso genuen, eta 2022an, Estrategiako Kudeaketa Aurreratuen Euskal Sarria jaso dugu.

Urte hauetan, Etengabeko Hobekuntza eta Kudeaketa Aurreratua sustatu ditugu, eta pertsona guztiak prestakuntza jaso dute eredu guztieta, urteko autoebaluazioak egin dituzte eta kudeaketa sistema mantendu dugu, kanpoko aholkularitza-enpresa batek hilerio eman digun laguntzari esker.

2. Kultura Estrategikoa

Gure Estrategiaren diseinua, 2021-2024 aldirako, erabat lerrokatuta dago Garapen Jasangarriko Helburuekin (GJH), eta, gainera, bat dator “One Health/Osasun bakarra” munduko estrategiarekin eta Europako Itun Berdean jasotako Baseritik Mahaira Estrategiarekin. Hortaz, Euskadiko 2030 Agendaren, Gastronomía eta Elikaduraren Plan Estrategikoaren (GEPE BERRIA) eta Basque Green Dealen (Euskadiko Itun Berdea) barruan dago.

a. ELIKAren misioa